

ETA MAITA HERRIA... (SEIGARREN ATALA)

Gerardo MUNGIA

Idoia eta Patxi hirian bizi dira. Atal honetan, berri txarra jasoko dute: Patxiren anaia Xabier preso eraman dute eta haren bi burkide babes eske doazkie. Patxi eta Xabierren herrian batzarra egingo dute plazan, gertatuaren berri emateko, eta bertan direla poliziak agertuko eta bi taldeen arteko borroka hasiko da.

2. SATANERIA

Jelki oholtzara Lozer eta Luzoker satan gehienak. Luziferrek eman aginduak bete behar dituzte.

Luzoker
88. Motel gabiltzak Lozer.
Oraindik taxuka hago!
Bitartean bekaitza
gugandik urrunago.

Lozer
89. Ez badiagu kirasten
hainbat gaizto guretzat.
Lana nahi nikek buka
Urtats honetan behintzat.

Luzoker
90. Abantzu euskaldun hauei
igorri zieat *txakurrada*.
Horiek zekitek ibiltzen
ostikadaz, zafladaz.

Lozer
91. Orduan hago lasaiki.
Dena konpondua apika.
Belagile batekilan
Ezkabarat noak xingilka.

Satanak oholtzatik erretira ate gorritik.

8. JELKALDIA

Patxi eta Idoia hiri handian bizi dira. Halere, sorlekuetarat ardura joaten dira. Bertze aldetik, euskaraz ikasten, mendira ateratzen, herri mugimenduan sarturik biek segitzen dute. Egun batez ezezagun batzuek etxeko atean jotzen dute. Berri txarra dakarte.

Jelki Patxi eta Idoia (ate urdinetik);
jelki Aitor eta Edurne (kanpotik, ikusle-
goaren artetik).

Aitor (bisitaria)
92. Agur Idoia, agur Patxi.
Ez zaituztegu nahi izu.
Poliziak gibelean.
Otoi, gaitzazue lagun.

Patxi
93. Zergatik gure etxera?
Erabat nauzue harritu.

Ez baikara adiskideak...
Nola gaituzue kausitu?

Edurne (bisitaria)
94. Militanteak garenez
eta arrisku handian
ea hartzen gaituzuen
gordaturik zuen etxean.

95. Xabier zure anaia,
altxatu baitute preso
zuengana gatozkizue.
Dakigu za(re)tela fetxo.



Patxi eta Idoia, ezkondu
ondoren, hiri handian
bizi dira.
Haira ARIZTEGI

Idoia
96. Baina nor zarete zuek?
Nolaz jakin egia den...
Ta, *txakur*ak bazinete?
Ze bokata dakarguzuen!

Idoiak eta Patxi gogoz kontra amore ematen dute. Aitor eta Edurne etxean gordaturik pausatzen dira eta haiek Patxiaren herrirat abiatzen dira arras kezaturik.
Aitor eta Edurne (kanpotik) erretira.

Patxi
97. Hurbil gaitezen herrirat.
Goazin Idoia zu ta biok.
Erreus naiz, zinez diot.
Polizia dut hastio.

Idoia
98. Ez ditut batere onartzen egoera mingar hauek.
Zerendako arriskatu?
Ez naute hunkitzen armek.

99. Alta, Xabierren alde ozenki dizut erranen:
Nahiz ta odola gatzatu edozer nuke eginen.

Biak herrirat doaz (kanpotik). Taulada hutsik geratzen da.

9. JELKALDIA

Patxi eta Idoia herrira heldu dira. Herri arrunt tikia da; halere, bizilagun ia guziak plazako alde batean bildu dira. Leire, Patxiaren ama, gauaz zer agitu den kontatzen ari da.
Jelki taulara herriko auzoak, elaireak, lagunak eta ahaideak (borta urdinetik).

Leire (ama)
100. Kraska alimalekoa, bortitz etxean sentitu.
Beheko xeilak eraitsi norbaitek nahi balitu.

101. Gero oraino latzagoak.
Zalu batean ohetik.
Espantoz, harrokeriaz guardiak korridoretik.

Fermin (aita)



Patxiaren anaia Xabier atxilo eramanen dute.
Haira ARIZTEGI

102. Oihuak, garrasiak.
Txakurrek herra begietan.
Xabier zolan bilurturik.
Aurpegia odoletan.

103. Guri bururat destatzen.
Etxeko gelak piazgora.
Hondarreko oroipena semearen heiagora.

Patxi eta Idoia hiri handian bizi dira. Euskaraz ikasten, mendira ateratzen, herri mugimenduan sarturik biek segitzen dute. Egun batez ezezagun batzuek etxeko atean jotzen dute. Berri txarra dakarte

Bere anaia Xabier preso hartu dutela jakin ondoren, Patxi herrira heldu da Idoiarekin. Herri arrunt tikia da; halere, bizilagun ia guziak plazako alde batean bildu dira. Leire, Patxiaren ama, gauaz zer agitu den kontatzen ari da

Jelki poliziak, jujea eta faxistak (borta gorritik). Herriko plazan sartzen dira, bortizki.
Lege bakarra azkarrarena da?

Lagunero (koronela)
104. Bilkura ez da legezkoa.
Berehala sakabana.
Alde egizue laster, fite!
Oldar baitezaket mana.

Espartero (guardiak koronelari)
105. Grrr. Emaiguzu baimena!
Jada hasteko pusaka.
Piloten aurtikitzeko.
Zaflakoka ta uztarka.

Gestero (guardia)
106. Espainia arriskuan!
Aski da! Hainbertze ipuin!
Guziak etarrak dira!
Zanpa ditzagun orain!

107. Francorekin dena hobeki.
Ez zen langabeziarik,
ebaslerik, etorkinik...
Gure Real Madril bakarrik!

Cisneros (guardia)
108. Bortzehun urte joan dira.*
Ez da aski zuendako?
Menperatuak zarete.
Noiz duzue ulertuko?

Carrero (guardia)
109. Napartarrak? Euskaldunak?
Frantsesak ala espainolak zaretela eta kitto!
Ulertarazteko nola?

Madero (guardia)
110. Arggg. Hiru minutu dituzue.
Erasotzeko gara prest.
Zuen harrokeria fini.
Kolpe bortitzenak niketz.

Bataila. Bi aldetarik kolpatuak.
Guardiak erretira, tiroka. Urdinak erretira leka-txistuka. Bakoitza bere atetik.
Agertokia hutsik geratu da.

* Bortzehun urte Nafarroako konkistatik